

GAIZKI ERRANKA

EAJren azentua



SANTI LEONÉ

Wikipedian paratzen du ezkertiarra eta errepublikazalea dela, eta sozialismo demokratikoa defendatzen duela. Publico.es egunkari digitalaz ari naiz. Albisteak ez ezik, blogak ere badituena. Strambotic du izena horietarik batek. Joan den ortzilaréan, egileak, Iñaki Berazalucek, “EAJren azenturik” *ba ote da, bada?* izeneko artikulutzarra egin zuen. Zorrotza eta irri-emangarria, izenburutik hasita. Zuk, irakurle, oraindik graziazirik ez badiozu ikusi, hona euskaraz ekarri dudalako izan da. Begira en erdaras: “*Existe el ‘acento del PNV’, pues?*”. Pues hori ez al da irri ajataka hasteko modukoa? Serio oraindik? Igual ez duzu umorerik, *ahí va la ostia*.

Teorian politikari jeltzale erdaldun batzuen itxurakeria salatu nahi duen testua den arren –izan baden itxurakeria: gogoan dut ETB2ko tertuliakide bat Azkuna zena goraipatzen, honek *debalde* erraten zuelako–, akaberran euskara bera alferrikako hizkuntza gisa aurkezten zaigu, eta haren erabilera hipokriten konspirazio erraldoi baten ondorio lotsagarria.

Blogeroak nori galdegin dion, horrek ere badu munta: bertzeak bertze, Eduardo Laporteri eta Javier Ancini. Navarra.comeko kolaboratzaileak, biak. Euskara batua, asmakizun bat, argitzen digu Laportek; euskara, oro har, iraganekeo exotismo hutsa, Ancinek. EAJren azentua aski ez, eta, jakina, Batasunaren azentua ere aipatu dute. Hor ere, itxurakeria nagusi. Beren artean, erdaraz egiten dute, lau esaldi kenduta. Ni neroni, erran beharrik ez da, erdaratik ari naiz itzultzen zutabe hau, neke handiz.

EAJren azentua: Bilboko politikari batzuen jarrera inkoherentea salatzekeo-edo, panfleto eskuindar bateko bi zutabegileri nafar unionismo zaharminduenaren topikoak errepikatzekeo aukera eman die ezkertiarra omen den *Públicok*.

Irakurle, Espainian baino hobeki, non egonen gara? ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

“GREBEN KONTU HAU ESTRATEGIA BAT DELA USTE DUT”

MARKEL OLANO, GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIA

Tabakalerako Ubik sorkuntza liburutegiko lan gatazkari buruz aritu da Olano: “Hauteskundeak ateetan daudela greben kontu hau asko ari da indartzen Gipuzkoan eta nik uste dut hori, azkenean, dela estrategia bat”. Gauza jakina da, ordea, Ubikeko bitartekarien greba ez zela hasi hauteskundeek baldintzatutako giro batean; azaroan egin zituzten lehenengo lanuzteak. “Erakundeen kontrako jarrera bortitzak, irainak” ere aipatu zituen Olanok, baina Ubikeko bitartekariak ez dute indarkeriarik erabili. **2019/03/22**

